



MEMORIA LABURPENA2021

BIDEGINTZA G.E.K.

www.bidegintza.org
info@bidegintza.org

Tel.: 944329123
Ronda Kalea, Bilbao



TABLA

PISECO – ESKU HARTZE SOZIO HEZITZAILE ETA KOMUNITARIOKO PROGRAMA_____	3
INURRI_____	4
PROGRAMA CAIXAPROINFANCIA. OBRA SOCIAL «LA CAIXA» _____	5
ETXEBIZIAK _____	6
BBK FAMILY _____	7
ORTUTXUETA _____	8
BATZORDEAK _____	9

PISECO – ESKU HARTZE SOZIO HEZITZAILE ETA KOMUNITARIOKO PROGRAMA


Bilboko Udalaren zerbitzua da (Gizarte Ekintza), Bidegintzak kudeatuta kontratu publiko baten bidez, eta, Babesaren testuinguruan kokatuta, haren helburua da BILBOKO BARRUTIKO haur eta gazteei eragin diezaiekeen babesgabetasun-arriskuko egoerak saihestea.

Bi ekintza-ildo barne hartzen ditu:


- **PREBENTZIOA:** Arrisku-egoera arinak antzeman, identifikatu eta artatzea.
- **BABESA:** Oinarrizko beharrianak ase gabe edukitzeagatik osasuna zein garapena nabarmen kaltetuta izan ditzaketen adin txikikoei arreta eskaintzea, baldin eta familiak edo tutoreek babes egokia bermatu ezin badute.

FAMILIAK	MUTILAK	NESKAK
149	208	152

2021. Familia kopurua PISECOetan



2021. Umeen kopurua PISECOetan



HELBURU OROKORRA: Haur zen gazteen beharrian fisiko, kognitibo zein emozionalen estaldura egokia ahalbidetzea, arrisku-egoera horiek sortzen diren testuinguruetan arreta berezia jarrita: Familia edota sozializazio testuinguruak.

INURRI

Inurri Zentroa Gizarte-ekimeneko Bidegintza Koop. Elkartearen proiektua da, Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Sailarekin lankidetzan garatzen dena. Haren helburua da **0-6 urte bitarteko haurrak** dauzkaten eta babesgabetasun-egoeran edo hartarako arriskuan dauden Bilboko familiei arreta eskaintzea, lehentasunez honako auzoetan: Zazpikaleak, Uribarri, Zurbaran, San Frantzisko-Abusu, Santutxu-Begoña eta Txurdinaga-Otxarkoaga.

Inurri zentroaren berezitasuna da **familia-nukleo osoarekin burutzen duela bere esku-hartzea, modu intentsiboan, betiere familiako kide** guztientzako esku-hartze espezializatuak barne hartuta. Erabiltzen den metodologiari dagokionez, bereziki nabarmendu nahi dugu haurtxoekin zein 2 urtetik beherako umeeekin egiten den esku-hartzearen funtsa estimulazio goiztiarra dela, baita gurasoen eta adin txikikoen artean sortzen den lotura segurua izateko beharrezko oinarriak sortzea ere.


Ondoren, 2 urtetatik 6 urtetara, oso kontuan izaten da haurren potentzialtasunak lantzea; horretarako, garapen pertsonala eta hazkuntza harmonikoa errazten dituzten tresna espezifikoak erabiltzen dira (horietako asko oso zentratuta daude metodologia psikomotrizistan).

Sistema honen hirugarren pieza gakoa gurasoak dira. Haiekin burutzen dugun esku-hartzea oso zentratuta dago adin txikikoen erantzukizuna duten heldu arduratsuen roletan.


Familiak	46
Mutilak	38
Neskak	30



2021. Familia kopurua INURRIIn



2021. Umeen Kopurua INURRIIn



PROGRAMA CAIXAPROINFANCIA. OBRA SOCIAL «LA CAIXA»

Caixa ProInfancia programa «La Caixa» Gizarte Ekintzaren ekimena da; **pobrezia ekonomiko eta babesgabetasun egoeran dauden haur eta gazteei zuzenduta dago**, eta haren helburua da horien garapen integrala sustatzea eta babestea, **haurrentzako eta horien familientzako parekidetasuna, gizarte kohesioa eta aukera berdintasuna hobetzeko politikak ahalbidetu eta babestuz.**

Programaren bitartez, hortaz, haur zein nerabeen eta horien familien egoera hobetu nahi da, baita hobekuntza-prozesu horretan autonomia izateko aukera emango dieten gaitasun eta konpromisoak garatzea ere.

Helburu nagusiak:


- **Haur eta nerabearen zein horien familiaren gaitasunen garapena bultzatzea**, gizarteratze eta autonomia prozesuak hobetzea ahalbidetze aldera.
- Haur zein nerabearen **gizarte eta hezkuntza arloko garapena sustatzea familia**, eskola zein gizarte eremuetan.
- **Gizarte ekintza eta hezkuntza integralari dagokion eredu bat garatu** eta ezartzea, haur zein nerabeen eta horien familien garapen sozial eta hezitailerako aukerak hobetzen lagunduko dituen.

CaixaProInfancia Programak ulertzen du babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen heziketa horretan erantzukizuna duten eragile sozial ezberdinen erronka dela. Horrela baino ez da bermatuko hezkuntzarako eskubidea eta horrela baino ez da posible izango programak duen hezkuntza arloko erronka handiari aurre egitea.


Datu batzuk

Familiak	57
Mutilak	61
Neskak	56

2021, Familia kopurua CAIXA PROINFANCIAN



2021. Umeen kopurua CAIXA PRO INFANCIAN



CaixaProinfancia

ETXEBIZIAK




Programa hau, **bazterketa-egoeran edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden familiekin hezkuntza-esku-hartzea egiten dugun esperientzia luzetik sortu da**. Eta, hain zuzen ere, horietara zuzentzen da, batez ere haien ardurapean seme-alabak dituzten emakumeak, gehienak etorkinak, testuingurua, generoa eta jatorriagatik etxebizitza eta bazterkeriari lotuta, pobrezia-arazoak dituztenak.

Lotura estua dago etxe egokia izatea, bizitza pertsonala eta **proiektu familiar bat garatzeko**; horregatik, etxebizitza funtsezko elementua da giza duintasuna bermatzeko. Bertan, pertsonen bizitza pribatua ez ezik, bilerako, elkarbizitzarako, familien eta komunitateen zaintzarako eta zaintzarako gunea ere bada. Hitz batean giza izaeraren oinarritzko beharra da.

Hala, gizarteratze-programa giza sortzen da, izaera globala eta bigarreneko eta hirugarreneko prebentzioan. Esku-hartzearen oinarria gizarte-bazterketa edo arrisku-egoeran dauden familiei laguntzea da. Gaur egun, Bilboko Udal Etxebizitzekin kontratu bata dela medio, 2 etxebizitza kudeatzen ditugu Bilboko 5 barrutian, itsasadarraren alde bakoitzean bana, eta, BBKren Gizarte Ekintzaren lankidetzarekin, 2019an ornitu ahal izan ditugu.

Bi etxebizitzak, igarotze-pisutzat hartzen dira, autonomia lantzeko etxeak, eta horietan ez dago profesionalik denbora guztian, baina erreferenteak badira, alde batetik funtzionamendu teknikoaren ardurarekin eta bestetik heziketa proiektuaz arduratzen dira.

2 Familia



BBK FAMILY

BBK-k 'BBK Family' proiektu berria jarri du abian, EDE Fundazioa eta BIDEGINTZA gek gizarte-erakundeekin lankidetzan, **gure seme-alabak hazi** eta hezteko behar dugun guztia eskaintzeko familiei, eta Bizkaian erreferentziako zentro izateko lehen mailako prebentzioaren eremuan.

BBK Family psikologia, pedagogia eta hezkuntzaren eremuko profesional adituen talde batek osatzen du. Baita hainbat gaitan adituak diren laguntzaileen talde zabal batek ere.



Canal Family-n oso erabilgarriak diren bideoak aurkituko dituzu hazkuntza-prozesuan zuri laguntzeko prestatuak. **BBK Family Learning** bidez, online ikastaroak ere egin ahal izango dituzu eta **aholkularitza pertsonalizatua** izango duzu, zeure zalantzak eta kezak gure profesional taldearekin kontsultatu ahal izateko.

Mediateka ere eskaintzen dizugu, liburuen, ipuinen, antzezlanen, filmen... gomendioekin, familian diberti zaitezten, eta zeure seme-alabekin landu gura dituzun gaietan laguntza izateko. Eta ez ahaztu **gure agenda** kontsultatzea, horrela jakingo duzu-eta zein kultura-ekintza, jardunaldi edo ekitaldi izango den Bizkaian.

Gainera, haurtzaroaren eta familiaren inguruan beharrezko diren erakundearen sare zabala du Bizkaiak; kalitate handiko eta ibilbide luzeko erakundeak dira. BBK Familyk **sare hau indartu** gura du, aliantzak eta sinergiak bilatu elkarrekin eraikitzen jarraitzeko eta gure lurraldean dauden proposamenen bozgorailu izateko. Beraz, ez ahaztu baliabideen gidari begiratu bat ematea.

DATU BATZUK

Aholkularitza	29 Online galdeketa
Web orria	1.128.765 bisita
Web erabiltzaileak	37.213 pertsona



ORTUTXUETA

2021.urtean sortutako programa da. **Dinamizazio komunitarioko proiektua** da ORTUTXUETA.

2021eko bigarren seihilekoan, Santutxu auzoko Ortutxueta eremuaren diagnostikoa egin da. Horri esker, ondoezaren arrazoi nagusiak aurkitu ahal izan dira komunitateen barruan, bai eta etorkizunean **bizikidetzaren hobetzeko aukera** emango duten indarguneak ere, **ikuspegi komunitario batetik eta maizterrak erantzunkide bihurtuz.**

Zuzenean parte hartzen dugu hura garatzeko beste erakundeekin batera, eskualdea eta bertan bizi diren pertsonak ezagutzen dituzten eragile gisa.



BATZORDEAK

BERDINTASUN BATZORDEA

Berdintasun planean agertzen diren 2021eko helburuak aurrera eraman ditu Berdintasun Batzordeak. Helburu nagusiak honeek izan dira

Proiektuak eta txostenak genero-ikuspegitik nola idatzi jakiteko, prestakuntza espezializatua jasotzea

GENERO-IKUSPEGIA PROIEKTUETAN ETA PRODUKTUETAN TXERTATZEA

Jardunbide egokiak beste erakunde batzuekin partekatzea

Urte hauetan I. Berdintasun Planaren esparruan egindako lana ikusaraztea.

EUSKARA BATZORDEA

2021. urtean zehar Euskara Batzordeak erakundearen egoeraren hausnarketa bat egiten egon da. Urtearen amaieran ateratako ondorioak zuzendaritzari bideratu dira.

Zuzendaritza taldeak hartzen duen erabakien arabera Euskara Batzordeak ekingo du ibilbide berriari.

TRATU ON-EN BATZORDEA

Bidegintzaren Hurren Tratu Onerako Batzordea, erakundearen puntu nagusia da, **Tratu Oneni eta Hurren Babesaren inguruan kontrasteak** egiteko eta **ekintzak bultzatzeko**, kooperatibaren barruan zein kanpoan. 2021 landutakoak:

BARNE MAILAN

Haurrak Babesteko Barne Politikaren ekintza-ildoekin jarraitu da. Bidegintzan Haurtzaroarentzako Ingurune Segurua bermatzeko ekimenak kontrastatu eta abian jartzeko prestakuntzaguneekin.

Lau mailatan: ingurune fisiko eta emozionalaren analisia eta hobekuntza, konpetentzia profesionalak eta Hurren eta Nerabeen Parte-hartzea.

KANPO MAILA

jarduerak egin dira komunitatea, familiak, haurrak eta eragileak sentibilizatzeko eta prestatzeko Hurren Eskubideen, Babes Politiken eta

Tratu Onerako Gaitasunen Ikuspegian.

Horrez gain, Erakunde batean Hurren Tratu Onik Ez egoteagatik, erreklamazio bat bideratu da.